

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

j

MALDATXO KALEKO MANTENIMENDU LANEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko abuztuan, Egia Bizirik auzo elkarteak hogeita bat bizilagunek izenpetutako eskaera bat aurkeztu zuen. Eskareri erantsita zetozen irudiek erakusten zuten zer gaizki zeuden Maldatxo kaleko zoladura eta horma.

Azaroaren 15ean, beriro ere, Maldatxo kaleko hormaren egoera salatzen zuen idazki bat aurkeztu zen. Idazkian adierazten zenez, Udaleko Ondasunen Erregistroan, lursaila publiko bezala identifikatuta dator (04091-B2-s erregistroan) eta, hortaz, hormaren mantenimendua Udalari dagokio.

Aurkeztutako salaketa eta bizilagunen segurtasunean eragiten duen kezka ikusita, abenduako batzordeetan zinegotzi ordezkariari galdetu genion ea udal teknikariek egiaztatu zuten Maldatxo kaleko hormaren egoera eta ea zer balioztapen egina zuten hartaz.

Aldi berean, galdetu genuen ea zer jarduketa egin behar ziren segurtasunaren eta itxuraren aldetik horma hori egoera egokira itzultzeko, eta ea noiz egingo ziren jarduketa horiek.

Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen horma ez zegoela Udalaren lursail batean eta haren mantenimendu eta konpontze lanak frantziskotarrei zegozkiela, bestelako azalpenik eman gabe.

Hori ikusita, urtarrileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen lursailaren publikotasuna argitzeko eta mantenimendu lanak zeini zegozkion zehazteko. Batzordean zinegotzi ordezkariak adierazi zigunez, “lan handia egin ondoren lursaila publikoa dela topatu dut eta, hortik abiatuta uler daiteke horma ere Udalarena dela”. Horrekin batera aipatu zuen teknikariak bidaliko zituela hormaren egoera zein zen aztertzeko.

Erantzun hori ikusita, ulertezina iruditu zitzaigun zinegotzi ordezkariak bost hilabete behar izatea lursail bat publiko edo pribatua zen zehazteko, jakinda Udal Ondasunen Erregistroan publiko bezala identifikatuta dagoela. Hori dela eta, abenduako udalbatzarrean aho batez onartua izan zen honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

1. *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Maldatxo kaleko lursail publikoan beharrezkoak diren konponketak egin ditzala eta inguruko bizilagunen segurtasun baldintzak zain ditzala, horma egoera egokian ipiniz.*

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

2. *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, zonalde bateko mantenimendu eta garbiketa betebeharrei uko egin baino lehen, zorrotz azter dezala lursaila publikoa edo pribatua den.*

Ekainean Maldatxoko bizilagunak gurekin harremanetan jarri ziren eta Udalak horman egindako lanen inguruko desadostasuna adierazi ziguten. Beraien ustez, egindako lanak partxeo lanak dira eta hormaren itxura zein segurtasun baldintzak ez dira hobetu.

Hau ikusita, delegatua interpelatu dugu uztailleko batzordeetan. Haren esanetan, oinarrizko interbentzioak egin dira, hormaren zirrikitueta porlana botaz eta erortzeaz zeuden harriak kenduz. Bizilagunen desadostasuna trasladatu diogunean, delegatuak aipatu du ez direla inbertsio gehiago egingo hormaren atzealdea frantziskotarrena delako.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Maldatxo kaleko horma behar bezala konpon dezala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Maldatxo kaleko egoeraren inguruan keak egin dituzten bizilagunekin eta Egia Bizirik auzo elkartearekin harremanetan jar dadila, haien iritzia entzuteko.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia